

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

215/2020 Foru Agindua, irailaren 18koa. Horren bidez Guardiako Hirigintza Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bateginean antzemandako akats materialaren zuzenketa onesten da, San Pedroko parajea dauden lurren kalifikazioari dagokiona

Lehenengoa.- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorreko 2020ko uztailaren 23ko sarerra datarekin, Guardiako Udalak idazkari kontu-hartzailearen ziurtagiria bidali zuen, udalbatzak 2020ko uztailaren 9an egindako ohiko bilkuran hartutako erabakiarena. Bertan, bertaratuek aho batez onetsi zuten udalerrri horretako Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bateginean aurkitutako akatsa zuzentzea, San Pedro parajea dauden lursailen kalifikazioari buruzkoa, eta espedientea Ingurumen eta Hirigintza Sailari bidaltzea, akatsaren zuzenketa onar dezan.

Bigarrena.- Bidalitako espedientean jasota dago Iñigo Melero Alonso hirigintzako arkitektoaren txostena, Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillaren bitartez Guardiako Udaleko aholkulari dena, bai eta izapidetzen ari den akatsaren zuzenketa egiaztatzen duen dokumentazio grafikoa ere. Zehazten denez, udalerriko Hirigintza Plangintzaren Arau Subsidiarioen Testu Bateginean akats bat antzeman da, San Pedroko parajea dauden eta Guardiako herrigunearen hego-mendebaldetik gertu dauden lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dauden lursailen kalifikazioari dagokionez. Akats hori da lursailak oker kalifikatuta daudela "Lehengoratu Beharreko Baso Eremuak Babesteko Lurzoru Urbanizaezin" gisa, eta "Nekazaritza Intereseko Eremuak Babesteko Lurzoru Urbanizaezin" gisa kalifikatuta egon beharko luketela.

Hirugarrena.- Udal txosten teknikoak justifikatzen du eskatutako zuzenketa akats materialaren zuzenketa dela, 5. puntuan jasotako argudioen arabera. Horrela, Hirigintza, Arkitektura eta Ingurumen Saileko diputatuak 1999ko martxoaren 8an emandako 119. Foru Aginduaren bidez (ALHAOn argitaratu zen, 1999ko martxoaren 24an, 33. zenbakian, eta 1999ko apirilaren 6ko 63. zenbakiko EHAAn), Guardiako Hirigintza Plangintzaren Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntuala onetsi zen, San Pedroko parajea buruzkoa. Aldaketaren xedea zen E zona "Nekazaritzako Balio Bereziko Eremu Babestu" gisa kalifikatzea paraje horretan mahastiz eta zerealez landatutako lursail batzuk, izan ere, lehen C Zona "Lehengoratu beharreko Baso Eremu" gisa kalifikatuta zegoen, baina bertan ez zegoen baso masarik.

2002ko abenduaren 23ko 1273 Foru Aginduaren bidez, Guardiako Hirigintza Plangintzaren Arau Subsidiarioen berrikuspena behin betiko onestea xedatu zen, zeinaren Testu Bategina 2004ko abuztuaren 2ko ALHAOn (88 zk.) argitaratu baitzen. Arau Subsidiarioen berrikuspenan, izapidetze unean indarrean zeuden lurzoru urbanizaezinaren kalifikazioak hartu ziren erreferentziatza; eta horien artean, 1999an onartutako aldaketa puntualaren ondorioz San Pedro parajea zegoen kalifikazioa hartu behar zen kontuan. Ildo horretan, Testu Bateginaren Memoriam (1. dokumentua) Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu Sailaren "Inbentarioa" argitalpena jasotzen da, eta bertan San Pedroko parajea buruzko aldaketa puntuala jasotzen da.

Arau Subsidiarioen Testu Bategineko lurzoru urbanizaezinari dagozkion planoetan, eguneratu egin ziren aurreko arau subsidiarioetan jasotzen ziren zonifikazioen izenak, eta, hala, C Zona "Lehengoratu beharreko Baso Eremua" izango zen "Lehengoratu beharreko Baso Eremuak Babesteko Lurzoru Urbanizaezina", eta E Zona "Nekazaritzako Balio Bereziko Eremu Babestua" "Nekazaritzako Intereseko Eremuak Babesteko Lurzoru Urbanizaezina".

Puntu honetan, udalaren txosten teknikoak azpimarratzen du, plano horiek idazterakoan, orain hautemandako akatsa gertatu zela, ez baitzen kontuan hartu San Pedroko parajea

buruzko aldaketa puntualaren ondoriozko grafia, eta lursailak "Lehengoratu Beharreko Baso Eremuak Babesteko Lurzoru Urbanizaezin" gisa kalifikatuta daude. Ondorioz, indarrean dagoen Guardiako Plangintzako Arau Subsidiarioetako II.2.3. planoko grafian akats bat dagoela egiaztatatu da, San Pedroko parajeko lursailek 1999an behin betiko onetsitako aldaketa puntualaren aurreko kalifikazioari eusten baitiote.

Laugarrena.- Azaldutakoaren arabera, udalaren txostenak proposatzen du Guardiako Hirigintza Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bategineko II.2.3. planoko grafia zuzentzea, San Pedroko parajeari buruzko aldaketa puntuala jasotzeko. Aldaketa hori 1999ko martxoaren 8ko 119 Foru Aginduaren bidez onetsi zen behin betiko Espedientean dokumentazio grafikoa jasota dago, bai oraingo bertsioan, bai zuzendutakoan.

OINARRI JURIDIKOAK

Aplikatu beharrekoa da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 109.2 artikuluan dioena: "Herri administrazioek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako huts materialak, egitezkoak edo aritmetikoak".

Aurkeztutako dokumentazioa kontuan hartuta, Guardiako Udalak bidalitako espediente teknikoan behar bezala justifikatu da indarrean dagoen Hirigintza Plangintzako Arau Subsidiarioen Testu Bateginean antzemandako akats materiala.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onespena ematea Guardiako Hirigintza Plangintzaren Arau Subsidiarioen Testu Bateginean antzemandako akats materialaren zuzenketari, San Pedroko parajearen lurren kalifikazioari dagokionez. "Lehengoratu Beharreko Baso Eremuak Babesteko Lurzoru Urbanizaezin" gisa oker kalifikatuta daude, "Nekazaritza Intereseko Eremuak Babesteko Lurzoru Urbanizaezin" gisa kalifikatu baitzituen Hirigintza, Arkitektura eta Ingurumen Saileko diputatuaren 1999ko martxoaren 8ko 119 Foru Aginduak, zeinak behin betiko onetsi baitzuen Guardiako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren Espedientea, San Pedroko parajeari dagokiona (1999ko martxoaren 24ko ALHAO, 33. zk.). Eta, ondorioz, lurzoruaren sailkapena eta lurzoru urbanizaezinen zonakatzea jasotzen dituen II.2.3 planoko grafia zuzentzea.

Bigarrena. Zuzenketa hori Arabako Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistroan sartzea.

Hirugarrena. Agintzea ebazpen hau ALHAOn argitara dadila.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAeko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, hilabete biko epean; edonola ere, berraztertzeke errekurtsua jarri ahalko zaio, nahi izanez gero, egintza eman zuen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin, edo egoki deritzon beste edozein errekurtsu ere aurkez daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 18a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO